# Gobernu Programaren jarraipenaren laburpena

## 2017. Urtea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA

## AURKEZPENA ....5

## I. PLANGINTZA ....7

**1. Legealdiaren hasiera** ....8
1.1 Gobernuaren jardunaren oinarriak ....8
1.2 Europako Estrategia 2020, Nazio Batuen Agenda 2030 eta Gobernuaren jardunaren oinarriak bateratzea .8

**2. Plangintza estrategikoa eta sailetako plangintza** ....9
2.1 Plan estrategikoak: 2017ko helburua eta betetze-maila .... 10.
2.2 Sailetako planak: 2017ko helburua eta betetze-maila .... 10
2.3 Planen inpaktua ....10
2.4 Ondorioak .... 11

**3. Legegintza-programa** ....12
3.1 2017ko helburua eta betetze-maila .... 12
3.2 2018rako aurreikuspenak .... 14
3.3 Ondorioa .... 14

**4. Programa operatiboa** ....15
4.1 2017ko helburua eta betetze-maila .... 15
4.2 Gardentasuna. Irekia ataria .... 16
4.3 Ondorioak ....17

## II. EMAITZAK ETA JARDUKETAK ....18

**5. Gobernu-ekintzaren emaitzak**
5.1 Herriaren 15 helburu ....19
5.2 Adierazleen aginte-taula ....28

**6. Ekintza garrantzitsuenak** ....29

**7. Onartuta dauden laguntza-programa nagusiak** ....30

**8. Urteko araugintza-plana** ....31

## TXOSTENAREN ONDORIOAK .... 34/35

1. ERANSKINA: Euskadi 2020 – Europa 2020 – Agenda 2030
(Nazio Batuak – Garapen jasangarrirako helburuak) ....36/38
2. ERANSKINA: Gobernuaren Plangintza Estrategikoa (2017-2020) ....39
3. ERANSKINA: Indarrean dauden eta 2018an onartu ahal diren sailetako planak .... 40/41
4. ERANSKINA: Plan estrategikoen eta sailetako planen inpaktuari buruzko itxa ....42
5. ERANSKINA: 2017 - 2020ko legegintza-programaren jarraipena ....43
6. ERANSKINA: Gobernu-jardunaren 100 ekintza garrantzitsuenak (2017ko urtarriletik abendura) .... 44-49
7. ERANSKINA: 2017ko programa eta laguntza-neurri esanguratsuenak .... 50/51
8. ERANSKINA: 2017ko Urteko Araugintza Plana: Gobernuak 2017an onartu dituen dekretuak .... 52-54

## ADENDA

Gobernuaren Departamentuek Gobernu-jarduna egitean garatutako ekintza adierazgarriagoak.(*)


*(*) Banandutako dokumentuan*

# Aurkezpena

Gobernu Programa 2017ko aldian zenbateraino bete den zehazte aldera, Gobernuak 2017an egin dituen ekintzen jarraipena azaldu dugu txosten honetan.

Txosten hau Gobernuaren ekintzen jarraipena egiteko prozeduraren barruan egin da. Jarraipen hori urteko bi unetan gauzatzen da: ekainaren 30a arte egindako jarduketak uztailean aztertzen dira; eta urtarrilean urteko balantzea egiten da, abenduaren 31 arte egindako jarduketak aztertuta.

Gobernu Kontseiluak 2017ko uztailaren 7an egin zuen bileran urteko lehenengo sei hilabeteei buruzko txostena aurkeztu zen. Geroago, Gobernu Kontseiluak 2018ko urtarrilaren 9an egin zuen bileran 2017ko ekitaldi osoko jarduketei buruzko txostena aurkeztu zen.

Txostena amaitutzat jo da, 2017ko abenduaren 31n eskuragarri zeuden datuak erabilita.

# I. Plangintza

# 1. Legealdiaren hasiera

## 1.1 Gobernuaren jardunaren oinarriak

2017an hasi da legealdia, eta, horrekin batera, Gobernuaren legealdiko jardunaren oinarriak finkatzeko tresnak ere onartu dira.

### Gobernuaren Plana

**4** zutabe ditu, **10** jardun-ardatz eta Programa Operatibo bat. Programa Operatiboan **175** konpromiso eta **655** ekimen bildu dira (Gobernu Kontseiluaren 2017ko otsailaren 21eko akordioa)

### Herriaren 15 helburu

Gobernu Kontseiluaren 2017ko otsailaren 21eko akordioa

### Plangintza Estrategikoa

Bertan bildu dira **15** plan estrategiko eta sailetako **58** plan (Gobernu Kontseiluaren 2017ko urtarrilaren 17ko akordioa)

### Legegintzako Programa

Bertan bildu dira **28** lege-proiektu (Gobernu Kontseiluaren 2017ko otsailaren 28ko akordioa)

## 1.2 Europako Estrategia 2020, Nazio Batuen Agenda 2030 eta Gobernuaren ekintzen oinarriak bateratzea

Oinarri horiek Europako **Estrategia 2020** eta Nazio Batuen **Agenda 2030** ekimenekin bateratu dira. Europako Estrategia 2020 deritzon ekimenaren bitartez, hazkunde inklusiboa, jasangarria eta adimenduna sustatzen da; eta Nazio Batuen Agenda 2030 deritzon ekimenaren bitartez, garapen jasangarria lortzeko helburuak jasota daude, bost jardun-arlotan banatuta. Honako arlo hauek dira: Pertsonak, Oparotasuna, Planeta, Bakea eta Lankidetza.

Bateratze hori *(1. eranskinean jasota dago)* legealdiko programaren indarguneetako bat da, hain zuzen ere: batetik, Europar Batasunaren helburuetan eta 2030eko Agendan ezarritakoetan egiten dugun ekarpena zehazten laguntzen duelako; eta, bestetik, Europako Estrategia eta garapen-jasangarria sustatzeko estrategia globala kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzaren **politika publikoak koherenteagoak** izaten laguntzen duelako.





# 2. Plangintza estrategikoa eta sailetako plangintza

## 2.1 Plan estrategikoak: 2017ko helburua eta betetze-maila

15 Plan Estrategiko zehaztu dira Gobernuaren Plangintza Estrategikoan (ikus 2. eranskina).

2017an 15 plan estrategikoak indarrean egoteko **helburua** ezarri zuen Gobernuak.

Helburua bete egin da. Hauxe da egoera, abenduaren 31n:

- **Bederatzi plan estrategiko indarrean daude, urtarrilaren 1etik.**

  Plan horietako sei planen indarraldia legealdi osorako da (Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra 2019an amaituko da, baina litekeena da 2020an luzatzea; horregatik, barne hartu da).

  Hiru planen indarraldia legealdian amaituko da; beraz, 2018ko eta 2019ko ekitaldietan izapideak egin beharko dira, planak berriro antolatzeko.

- **Sei plan estrategiko 2017ko ekitaldian onartu dira** Gobernuaren aurreikuspenak betetze aldera.

Hona hemen datuak, banakatuta:

| 2017-2020 Aldian indarrean dauden plan estrategikoak | | |
|---|---|---|
| **Plan estrategikoak** | **Saila(k)** | **Indarraldiaren azken urtea** |
| 1. Nazioartekotzeko "Basque Country" estrategia 2020 | Lehendakaritza | 2020 |
| 2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020 | Lehendakaritza | 2020 |
| 3. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2020 | Enplegua eta Gizarte Politikak | 2020 |
| 4. IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 | Ingurumena, Lurralde Politika eta Etxebizitza | 2020 |
| 5. Osasun Plana 2013-2020 | Osasuna | 2020 |
| 6. Euskadiko Segurtasunaren Plan Orokorra 2020 | Segurtasuna | 2020 |

| Honako plan hauek indarrean daude 2017an, baina haien indarraldia 2020. Urtea baino lehen amaituko da | | |
|---|---|---|
| **Plan estrategikoak** | **Saila(k)** | **Plangintza berriko urtea** |
| 1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana | Lehendakaritza | 2018 |
| 2. Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana | Hezkuntza | 2018 |
| 3. 2015-2018ko Unibertsitate-plana | Hezkuntza | 2019 |

| 2017an onartuta dauden plan estrategikoak, 2017-2020 aldirako | | |
|---|---|---|
| **Plan estrategikoak** | **Saila(k)** | **Onarpen-data** |
| 1. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020 | Lehendakaritza | 2017-10-10 |
| 2. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2017-2020 | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | 2017-12-15 |
| 3. Industrializazio Plana 2017-2020 | Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak | 2017-07-18 |
| 4. Enplegurako Plan Estrategikoa 2017-2020 | Enplegua eta Gizarte Politikak | 2017-11-28 |
| 5. Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020 | Kultura eta Hizkuntza Politika | 2017-12-19 |
| 6. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana 2017-2020 | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 2017-12-26 |

## 2.2 Sailetako planak: 2017ko helburua eta betetze-maila

XI. legealdian sailetako plangintzan **sailetako 57 plan** daude. Gobernu Kontseiluak 2017ko otsailaren 21ean egin zuen bileran zehaztu ziren.

Plan Estrategikoetan ez bezala, Gobernu Akordioak ez du ezarri indarraldiari lotutako **helburu** espezifikorik. Hori horrela bada ere, komeni da 2018an indarrean dauden sailetako plan kopurua ahalik eta handiena izatea.

Abenduaren 31n, hauxe da **egoera**: sailetako 57 planetatik 35 indarrean daude, 2017an.

Hori dela eta, legealdiko azken urtean Gobernuak sailetako plangintzaren **% 60** bete du.

Datu hori ona bada ere, kontuan hartu behar da 12 plan 2017an onartu direla, eta 2018an sailetako 22 plan gehiago onartu beharko direla, Gobernuaren helburua betetzeko. Argi dago aurreikuspen horrek gehien eragiten dien sailetan lan handia egin beharko dela, helburu hori betetzeko.

3. eranskinean zehaztasunez azalduta daude 2017an indarrean dauden planak, bai eta 2018an onartzeko daudenak ere.

## 2.3 Planen inpaktua

Plangintzak Gobernu Programaren helburuen eta konpromisoen betetzean zer inpaktu izan duen zehazte aldera, plan estrategikoei eta sailetako planei buruzko **“inpaktu-fitxa”** bat bete behar da. Eredua 4. eranskinean jasota dago.

Horren bitartez, plan bakoitzak Gobernu Programan izan duen inpaktua era homogeneoan ebaluatu ahalko da, eta Gobernuaren plangintza osoaren inpaktua ere baloratu ahalko da.

Planari lotutako **aurrekontu-programa eta -partida batzuk** inpaktu-fitxan sartu dira. Horrela, Gobernuak laburbilduta ikusi ahalko du plangintza horretarako hitzartuta dagoen aurrekontu osoa.

2018ko aurrekontuak egiteko gidalerro ekonomikoetan bereziki azpimarratu da aurrekontu estrategikoen oinarriak garatu behar direla. Aurrekontuak emaitzetara bideratuta daude, eta plangintza estrategikoa eta sailetako plangintza funtsezkoak dira, xede horretarako.

Helburu hori betetze aldera, Koordinazio-Zuzendaritza eta Ekonomia- eta Aurrekontu-Zuzendaritzak harremanetan jarriko dira sailetako arduradunekin, dagozkien planei buruzko “inpaktu-fitxa” bizkorrago eta errazago bete dezaten.

2018ko balantzeari buruzko txostenean, Gobernuaren Plangintzaren inpaktuaren garapen horren emaitza aztertuko da.

## 2.4 Ondorioak

### 1.a

2017an, Gobernuak Plangintza Estrategiko osoa indarrean dauka (15 plan estrategiko); hortaz, ezarritako helburua bete egin da. Lorpen handia da hori, legealdiko lehen urtean.

### 2.a

Berdintasun Planaren eta Lanbide Heziketarako Planaren indarraldia 2018-01-01ean amaituko da; beraz, 2018an onartu beharko dira. 2019an Unibertsitate Plana onartu beharko da, haren indarraldia 2019-01-01ean amaituko baita. Horrek bermatuko du Plangintza Estrategikoa legealdiko ekitaldi guztietan indarrean egotea.

### 3.a

Sailetako Plangintza abiadura egokian gauzatzen ari da. Aurreikusita zeuden sailetako 57 planetik 35 indarrean daude (sailetako plangintzaren % 57), eta 2017an haietako 12 onartu dira.

### 4.a

Gobernuaren helburuetako bat da 2018an ahalik eta sailetako plan gehien indarrean eta erabilgarri egotea; hortaz, planek gehien eragiten dieten sailetan lan handia egin beharko dute. Zehatz-mehatz, sailetako 22 plan onartu beharko dira.

### 5.a

Plan estrategiko eta sailetako plan bakoitzeko “Inpaktu-fitxak” 2018an beteko dira (jarduketak, emaitzak eta aurrekontua). Horrela, Gobernuaren plangintzaren inpaktua legealdian ebaluatu ahalko da, eta EAEko Aurrekontu Orokorren alderdi estrategikoak indartu ahalko dira.

# 3. Legegintza-programa

## 3.1 2017ko helburua eta betetze-maila

Gobernuaren Legegintza-Programa 28 lege-proiektuak osatzen dute. Proiektuen zerrenda eta egutegiak *5. eranskinean* jaso dira.

Legegintza-Programaren **2017ko helburua**ren arabera, portuen eta itsas garraioaren lege-proiektuak urteko hirugarren lauhilekoan jada jaso behar izan zuen Gobernuaren onarpena.

**Emaitzek** helburu hori gainditu dute, eta hauxe da gaur egungo egoera:

| Gobernuak 2017an onartu dituen lege-proiektuak | | |
|---|---|---|
| **Lege-proiektua** | **Onarpen data** | **Legegintza-Programaren aurreikusitako onarpena** |
| Portu eta itsas-garraioa | Ekainaren 13a | 2017ko hirugarren lauhilekoa |
| Administrazio Publikoen Jasangarritasun Energetikoa | Ekainaren 27a | 2018ko lehen lauhilekoa |
| Dopinaren aurkako legea aldatzea | Uztailaren 4a | 2018ko bigarren lauhilekoa |
| Kultura-ondarea | Uztailaren 18a | 2018ko hirugarren lauhilekoa |
| Kirol-lanbideetan sartzea eta jardutea | Azaroaren 7a | 2019ko lehen lauhilekoan |

Jarduketa hori eginda, Gobernuak 2017ko Legegintza-Programaren helburua bete du. Horrez gain, lau lege-proiekturen onarpena aurreratu du. Espero da lege-proiektu horiek 2018an eta 2019an onartzea.

Legegintza-Programan aurrerapen hori lortu da, proiektu horietako prozedura eta idazkera aurreko legealdian amaitu zirelako, eta dagozkien nahitaezko barne txostenak ere egin zirelako. Hortaz, edukian aldaketa handirik egin ez denez, izapideak bizkortu ahal izan dira, eta aurreikusi baino lehenago aurkeztu ahal izan zaizkio Gobernuari, onar ditzan.

Gainera, 2017an hainbat lege-proiekturen izapideak ere aurreratu dira. Eusko Legebiltzarrean lege-proposamen gisa izapidetu dira. Hauxe da zerrenda:

| Legegintza-Programan jasota dauden eta lege-proposamen gisa izapidetu diren lege-proiektuak | |
|---|---|
| **Lege-proposamena** | **Gobernuaren oniritzia** |
| Lanbide Heziketa | 2017ko maiatzaren 30ean |
| Gardentasuna, Herritarren Partaidetza eta Gobernu Ona | 2017ko irailaren 19an |
| Euskal sektore publikoaren antolamendu eta funtzionamendua | 2017ko urriaren 3an |

Horrez gain, Eusko Legebiltzarrak honako lege hauek onartu ditu, lehenengo seihilekoan:

| Eusko Legebiltzarrak 2017an onartu dituen legeak | |
|---|---|
| 1 | 1/2017 Legea, otsailaren 16koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legea aldatzekoa. |
| 2 | 2/2017 Legea, apirilaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. |
| 3 | 3/2017 LEGEA, azaroaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017ko Aurrekontuak onartzen dituen Legea aldatzen duena. |
| 4 | 4/2017 LEGEA, azaroaren 2koa, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua Sorrarazteari buruzko ekainaren 10eko 5/1981 Legea aldatzen duena. |
| 5 | 5/2017 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. |
| 6 | 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen testu bategina onesten duena. |
| 7 | 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. |

### 3.2 2018rako aurreikuspenak

**2018. urteari dagokionez**, lege-proiektuak izapidetzeko behar den denbora kontuan hartuta, hauxe jakin behar da:

1.a Gobernu Kontseiluak hiru lege-proiektu **2018ko lehen hiruhilekoan** onartzea aurreikusita dauka. Lege-proiektu horietako bi izapidetzen hasi dira, eta jarraipena egin beharko zaie, epeak betetzen diren ziurtatzeko, eta lehen hiruhileko horretan onartzeko moduan dauden ziurtatzeko. Lege-proiektu baten izapideak (Ekarpenen Legearena, batik bat) oraindik ez dira hasi, eta zaila da onarpen-data aurreikustea, lege hori oso espezifikoa delako.

| Planen arabera, 2018ko lehen lauhilekoan onartu beharko diren lege-proiektuak | | |
|---|---|---|
| **Lege-proiektua** | **Saila** | **Izapidetzea** |
| Kultu-aretoak | Lehendakaritza | Hasita |
| Ekarpenak, 2017–2021 bitartean | Ogasuna eta Ekonomia | Hasi gabe |
| Euskal Estatistika Plana | Ogasuna eta Ekonomia | Hasita |

2.a Bigarren hiruhilekoan aurreikusitako bost proiektuetatik hiru izapidetzen hasi dira dagoeneko, baina gainerako biak, ez. Hori dela eta, proiektu horien izapidetzea kontuan izan beharko da, Legegintza-Programaren helburuak bete ahal izateko.

| Planen arabera, 2018ko bigarren lauhilekoan onartu beharko diren lege-proiektuak | | |
|---|---|---|
| **Lege-proiektua** | **Saila** | **Izapidetzea** |
| Xedapen orokorrak egiteko legearen aldaketa | Gobernantza | Hasita |
| Diru-laguntzen araubidea erregulatzekoa | Ogasuna eta Ekonomia | Hasita |
| Administrazio Publikoen zehatzeko ahala | Gobernantza | Hasita |
| EAEko poliziari buruzko legea aldatzea | Segurtasuna | Hasi gabe |
| Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak bermatzeko Legea aldatzeko | Enplegua eta Gizarte Politikak | Hasi gabe |

### 3.3 Ondorioa

Gobernuaren Legegintza-Programan ezarritako 2017ko helburuak eta askoz ere gehiago bete dira, **2017an**.

Legegintza-Programan ezarrita zegoen 2017an lege-proiektu bat onartzea. Horren ordez, bost lege-proiektu eta hiru lege-proposamen onartu dira. Hori dela eta, **2017-2020 Legegintza-Programan ezarritako 28 legeetatik zortzi izapidetzen hasi dira, Legebiltzarraren egoitzan**.

Horrekin batera, Legegintza-Programan sartuta egon ez arren, bost lege eta bi legegintzako dekretu ere onartu dira, Legebiltzarrean.

Legegintza-programan ezarrita dago zortzi lege-proiektu **2018an** onartzea, ekitaldiko lehen bi lauhilekoetan. Egutegi hori betetzeko, proiektu horien jarraipen zehatza egin beharko da. Haietako hiru ez dira tramitatzen hasi.

# 4. Programa operatiboa

## 4.1 2017ko helburua eta betetze-maila

Gobernuaren Programa Operatiboan **175 konpromiso eta 655 ekimen** ezarri dira.

Hauxe da 2017. urtearen hasieran ezarri zen urte horretarako **helburua**: 175 konpromisoen erdiek jarduketak eginda izatea, konpromiso horiek garatzen dituzten sailen eskutik; ekimenen heren bati lotutako jarduketak eginda izatea, dagozkien sailek garatuta.

Urteko lehen seihilekoari buruzko uztaileko txostenean egiaztatu zen agerikoa zela Gobernua gai zela aurreikusitako jarduketak baino askoz ere gehiago egiteko. Hori dela eta, 2017ko helburua berriro aztertu, eta honela zehaztu zen: jarduketak konpromiso guztietan eta ekimen erdietan garatzea. Horren arabera, hasierako aurreikuspenak ia bikoiztu behar zuen.

2017. urtearen amaieran, hauxe da egoera:

| SAILA | Konpromisoen kopurua | Jarduketa argitaratuak dituzten konpromisoak | Ekimenen kopurua | Jarduketa argitaratuak dituzten ekimenak |
|---|---|---|---|---|
| Lehendakaritza | 19 | 19 | 66 | 49 |
| Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | 12 | 12 | 39 | 27 |
| Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak | 20 | 20 | 91 | 80 |
| Enplegua eta Gizarte Politikak | 21 | 21 | 70 | 54 |
| Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza | 12 | 12 | 53 | 48 |
| Ogasuna eta Ekonomia | 6 | 6 | 25 | 14 |
| Hezkuntza | 18 | 18 | 59 | 55 |
| Osasuna | 26 | 26 | 93 | 83 |
| Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 5 | 5 | 34 | 34 |
| Kultura eta Hizkuntza Politika | 17 | 17 | 59 | 57 |
| Segurtasuna | 7 | 7 | 23 | 21 |
| Lana eta Justizia | 12 | 12 | 43 | 43 |
| **GUZTIRA** | **175** | **175** | **655** | **565** |

Hori dela eta, Gobernuak ezarritako helburua bete egin da. Gainera, XI. legealdiko lehen urtean oso handia izan da Gobernu Programan ezarritako konpromisoen betetze-maila.

## 4.2 Gardentasuna. Irekia ataria

Programa Operatiboari buruz, eta Herriaren 7. helburua *("Gardentasunaren nazioarteko indizeetan lider izatea")* betetze aldera, ezinbestekoa da sailetako jarduketak Irekia atarian argitaratzea, horretarako garatu den aplikazioa erabiliz.

**2017ko ekitaldian**, sailek egin duten lan handiari esker, sailetan gauzatu dituzten eta txosten honetako gehigarrian jasota dauden ia jarduketa guztiak gardentasun-atarian ere argitaratuta daude. Gainera, sailek Gobernu Programan ezarritako beste konpromiso eta ekimen batzuei buruzko jarduketak ere atarian jakinarazi dituzte, nahiz eta jarduketa horiek gehigarrian jasota ez egon. Izan ere, jarduketa guztiak ez dira gehigarrian jaso behar, baizik eta garrantzitsuenak.

Horren ondorioz, Gobernu Programan ezarritako gardentasun-konpromisoa era egokian betetzen ari da: guztira **2.132 jarduketa** argitaratu dira Irekia atarian, 2017an.

**2018ko erronkak** kualitatiboa izan behar du, kuantitatiboa baino. Sailek barneratu duten dinamikaren arabera, pentsa daiteke 2018an jarduketa ugari argitaratu ahalko direla. Hori horrela, honako hobekuntza hau egin liteke: atarian sail guztien gaineko ikuspegi analogoagoa ematea, bai jarduketak argitaratzeko irizpideei dagokienez, bai egindako jarduketen idazkerari dagokionez. Horrek osotasun handiagoa emango lioke Gobernuaren jardunari, orokorrean aztertuta.

## 4.3 Ondorioak

### 1.a

Legealdiko lehen urtean, Gobernu Programan ezarritako 175 konpromisoak egin dira, Gobernuak berak eta sailek egindako jarduketen bidez garatuta. Gobernuaren hasierako helburuen arabera, legealdiko lehen urteko betetze-mailak % 50 izan behar zuen; beraz, nabarmen gainditu dira hasierako helburuak.

Hortaz, helburuak gorantz berrikusi ziren, eta Gobernuak berriro ere bete ditu: Gobernu Programan ezarritako konpromiso guztiei lotutako jarduketak egitea.

### 2.a

Gobernu Programan ezarritako 650 ekimenei buruz, gauza bera gertatu da: hasierako helburua 220 ekimenek (heren batek) garapen-jarduketak atxikita edukitzea zen. Azkenean, Gobernuak eta sailek 565 ekimenetan egin dituzte jarduketak; hortaz, ekimen guztien % 86 garatu da.

### 3.a

Gobernuaren gardentasun-konpromisoa dela eta, Gobernu Programan jasotako konpromisoei eta jarduketei lotuta, Gobernuak eta sailek 2.132 jarduketa argitaratu dituzte, Irekia atarian. Lorpen hori guztiz nabarmena da.

### 4.a

2018. urteari begira, litekeena da jarduketa argitaratuen kopurua oso handia izatea. Hori dela eta, hobekuntza kualitatiboa egitea proposatu da: argitaratzen diren jarduketen kalitateari eta Gobernu Programa osatzen duten konpromisoak eta ekimenak era homogeneoagoan banatzeari buruzkoa.

# II. Emaitzak eta jarduketak

# 5. Gobernu-jardunaren emaitzak

## 5.1 Herriaren helburuak

Gobernu Programan Herriaren 15 Helburu ezarrita daude. Helburu horien betetze-emaitzak eragin oso handia izango du, Gobernuaren XI. Legealdiko jardunaren gako-emaitzen lorpena zehazteko.

15 helburu horiei lotutako adierazleen egoera hauxe da, legealdiko lehen urtean:

**HERRIAREN 15 HELBURU, "EUSKADI 2020" -** 2017KO ABENDUKO JARRAIPENA

| | HERRIAREN HELBURUA | ADIERAZLEA | 2017 ABENDUA | 2020 HELBURUA |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Langabeziaren tasa % 10 baino txikiagoa izatea | Langabezia-tasa (PRA, Eustat) | % 11,0 | < % 10 |
| 2 | 20.000 gaztek lehenengo lan-esperientzia izatea | Gazteek parte hartzea lehen lan-esperientzia sustatzeko programetan | 6.725* | 20.000 |
| 3 | Industriako BPGda % 25era eta EBko biztanle bakoitzeko BPGda % 125era heltzea | Industriaren balio ekonomiko erantsia / BPGda (Ogasun eta Ekonomia Saila)<br>Biztanle bakoitzeko BPGd (Eurostat) | % 24,1<br>% 119 | % 25<br>% 125 |
| 4 | I+Gko 100 proiektu estrategiko | I+Gko proiektu estrategikoak, HAZITEK programak edo baliokideak (ZTBP) finantzatuta | 35 | 100 |
| 5 | Berotegi-efektuko gasen isurketa % 20 murriztea | Berotegi-efektuko gasen isurketa murriztea, 2005eko tasekin erkatuta (Europa 2020ko ekimena) (Eurostat) | % 24,1 | % 20 |
| 6 | Europako defizit publikoaren konpromisoa betetzea | Urteko kontabilitatea Ogasun eta Ekonomia Saila | % 0,6 | % 0 |
| 7 | Nazioarteko gardentasun-indizeetan lider izatea | INCAU indizea (International Transparency Organization) | % 100 | % 100 |
| 8 | Bizi-itxaropena handitzea | Bizi-itxaropena jaiotzerakoan (EIN) | 83,1 | 84,1 |
| 9 | Eskolaren uztearen tasa % 8 baino txikiagoa izatea | Eskolaren uzte goiztiarraren tasa (Eurostat) | % 7,9 | < % 8 |
| 10 | 25 urtetik beherakoen % 75 euskal hiztun izatea | 25 urtetik beherako euskal hiztunen % (IV. Inkesta soziolinguistikoa — Kultura Saila) | % 73,3 | % 75 |
| 11 | Pobreziaren tasa % 20 murriztea | Pobrezia-tasa (Eurostat) | % 9 | < % 8 |
| 12 | Jaiotza-tasa igotzea. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak igotzea | Jaiotza-tasa / 1.000 biztanle (Eurostat)<br>Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen programaren zenbatekoa (aurrekontuak) | 8,7<br>30,7 M € | > 8,7<br>37 M € |
| 13 | Euskadi Europako lehenengo 4 herrien artean jartzea, genero-berdintasunaren arloko adierazleetan | Gender Equality Index (European Institut for Gender Equality -EIGE-) | 5. postuan | 4. postuan |
| 14 | ETAren behin betiko armagabetzeari eta desegiteari amaiera ematea | 2017ko apirilaren 8a: ETAren behin betiko armagabetzea | | |
| 15 | Estatutu politiko berria | 2017ko urtarrilaren 26a: Autogobernuari buruzko ponentzia Eusko Legebiltzarrean eratzea | | |

*(*) Behin-behineko datuak*

Adierazle horien bilakaera dela eta, herriaren 15 helburuak hiru taldetan sailkatu ahal dira:

**Lehenengoa**: betetze-zailtasun txikiagoko helburuak, joera aldatzeko egitaterik egon ezean (8 helburu):

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Langabeziaren tasa % 10 baino txikiagoa izatea** | **I+Gko 100 proiektu estrategiko** | **Europako defizit publikoaren konpromisoa betetzea** | **Nazioarteko gardentasun-indizeetan lider izatea** |
| **Bizi-itxaropena handitzea** | **Eskolaren uztearen tasa % 8 baino txikiagoa izatea** | **25 urtetik beherakoen % 75 euskal hiztun izatea** | **Jaiotza-tasa igotzea. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak igotzea** |

Helburu horien jarraipenak zorrotza izan beharko du, betetzeari buruzko aurreikuspena alda dezakeen edozein joera-aldaketari aurrea hartzeko. Xede horretarako, Gobernu Programaren sei hilez behingo txostenetan aztertuko dira adierazle horiei eragiten dieten joerak.

Zehazki, uztailetik, azken txostena egin zenetik, ez da behatu betetze-aurreikuspenetan eragina izan dezakeen joera-aldaketarik. Ildo horretatik, 2018ko Aurrekontua egiteko azken gidalerroetan bildu diren joera ekonomikoek ere aurreikuspen hori berresten dute.

**Bigarrena**: betetze-zailtasun handiagoko helburuak. Bost helburu hauek ezarri dira:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **20.000 gaztek lehenengo lan-esperientzia izatea** | **Industriako BPGda % 25era eta EBko biztanle bakoitzeko BPGda % 125era heltzea** | **Berotegi-efektuko gasen isurketa % 20 murriztea** | **Pobreziaren tasa % 20 murriztea** | **Euskadi Europako lehenengo 4 herrien artean jartzea, genero-berdintasunaren arloko adierazleetan** |

Helburu horiei eragiten dieten adierazleen osagaiak xehetasun handiz aztertu behar dira, bai eta lorpena osatzeko behar diren neurriak eta jarduketak ere. Atal honetako laugarren puntuan egin da haietako bakoitzari buruzko analisia.

**Hirugarrena**: betetze-maila jakinarazteko adierazle zehatzik ez duten helburu politikoak (2 helburu):

| | |
|---|---|
| **ETAren behin betiko armagabetzeari eta desegiteari amaiera ematea** | **Estatutu politiko berria** |

*6. eranskinean* jaso dira Gobernuak 2017an helburu horiei lotuta egin dituen jarduketa esanguratsuenak. Besteak beste, nabarmentzekoak dira honako hauek:

- ETAren armagabetzea, 2017ko apirilean
- 2017ko irailean, Autogobernuaren ponentzian eskatuta, Eusko Legebiltzarrari bi txosten bidaltzea, eta txosten horien bidez jakinaraztea 37 transferentzia egiteko daudela, Gernikako Estatutua onartu zenetik
- Ekonomia Itunari buruzko Legea eta 2017-2021 Bosturteko Kupoa zehazteko legea aldatzea eta eguneratzea, 2017ko abenduan

**Laugarrena:** betetze-zailtasun handiagoa eta adierazle kuantitatiboak dituzten helburuak:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **20.000 gaztek lehenengo lan-esperientzia izatea** | **Industriako BPGda % 25era eta EBko biztanle bakoitzeko BPGda % 125era heltzea** | **Berotegi-efektuko gasen isurketa % 20 murriztea** | **Pobreziaren tasa % 20 murriztea** | **Euskadi Europako lehenengo 4 herrien artean jartzea, genero-berdintasunaren arloko adierazleetan** |

2017an, *Enpleguaren eta Ekonomiaren Susperraldiaren aldeko 2017-2020 Esparru Programa* eta *2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa* onartu dira. Batean eta bestean jarduketak ezarri eta aurrekontuak antolatu dira, helburu hori lortzeko.

Esparru Programaren Jarraipen Batzordea 2017ko azaroan bildu zen. Bileran helburu horri lotutako programak eta ekimenak zehaztu ziren. Horrez gain, 2017ko amaieran haietako bakoitzak izan zitzakeen behin-behineko emaitzak ere eztabaidatu ziren.

Emaitzak honako taula honetan laburbildu dira:

| ADIERAZLEA | 2017ko behin-behineko emaitzak |
|---|---|
| Lehen Aukera izeneko programan parte hartzen duten gazteak | 300 |
| Heziketa duala amaitu duten eta lehen lanpostua eskuratu duten gazteak | 1.600* |
| Lanbide Hezita ikasi duten eta trantsizio-programan parte hartzen ari diren gazteak | 400 |
| Trantsizio-programan parte hartzen ari diren gazteak | 750 |
| Ekintzaileei laguntza emateko programan parte hartzen ari diren gazteak (Lanbide) | 100 |
| Gazteen ekintzailetza sustatzeko programa, lanbide-heziketarekin eta unibertsitateekin laguntzarekin batera | 150 |
| Gaztenpresa Programan parte hartzen duten gazteak | 500 |
| Urrats Bat Programan parte hartzen duten gazteak | 165 |
| Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planetan egiten diren askotariko jarduketa tipologietan kontratatu diren 35 urtetik beherako pertsonak** | 500** |
| Pertsona erretiratuak ordezten dituzten 35 urtetik beherako pertsonak, lan-eskaintza publikoen bidez antolatuta*** | 1.690*** |
| Enpresek kontratatu dituzten gazteak, txandakako kontratua sustatzeko programen bidez | 25 |
| Lan-eskarmentua duten eta gazteen itzulerarako diseinatutako babes-zerbitzuen bitartez itzuli direnak | 40 |
| Nazioartekotze-bekak eskuratzeko programan (Beint Programan) parte hartzen duten gazteak | 95 |
| Global Training Programan parte hartzen duten gazteak | 410 |
| Aukera-eremu espezifikoetan abiarazi diren programetan eta ekimenetan parte hartzen duten gazteak | 2018an abiaraziko da |
| **GUZTIRA** | **6.725** |

*(*) Goi-mailako lanbide-heziketa duala 2017an amaitu duten gazteen % 84k kontratu bat sinatu dute, heziketa amaitu eta hurrengo egunean.*
*(**) Kontratatzen diren pertsona guztien % 30 plan horien bitartez kontratatzen direla jotzen da.*
*(***) Lan-eskaintza publikoen bitartez txanda irekian sektore publikoan sartzen diren pertsona guztien % 40.*

2017. urtearen amaierako behin betiko datuak otsailean jakinaraziko ditu Jarraipen Batzordeak. Datu horiek ez badittugu ere, zenbait gogoeta egin dezakegu.

- 20.000 zifrari lotutako lorpena legealdiko lau urteetan banatu zen, honela: 5.000, urte bakoitzean.
- 2017an soberan bete da helburu hori, baina kontuan hartu behar dugu horretan lan-eskaintza publikoaren iragarkiak ere zenbatu direla (Administrazio Orokorrekoak, Osasun Sailekoak, Hezkuntza Sailekoak eta Ertzaintzakoak). Txanda irekiko 4.221 lanpostu eskaini dira, eta 2018an eta 2019an bete beharko dira.
- Kontratu baten bidez, lanbide-heziketa duala lehen lan-esperientzia bihurtzeko datuak bikainak izan dira, 2017an. Gainera, urtearen amaierako behin betiko zifrak ezagutu ondoren, baliteke % 84 baino handiagoa ere izatea. 2018an bihurtze-tasa horri arretaz erreparatu beharko zaio, joera hori sendotzen den jakiteko.
- Ezarritako helburua 2017an lortu ez duten programen eta ekimenen eraginkortasuna hobetu behar da (Lehen Aukera, txandakako kontratua eta gazteen itzulera, batik bat).
- Komeniko litzateke jakitea Gobernuaren sailek garatzen dituzten beste programa eta ekimen batzuen bidez ere gazteei lehen lan-esperientzia eman ahal zaien: esaterako, nekazari gazteei buruzkoak, lehen sektoreari buruzkoak, merkataritzari buruzkoak, etab. Helburua bikoitza izango litzateke: batetik, adierazlea hobetzea; eta, are garrantzitsuagoa, helburu horretan eragina izan dezaketen programa guztiak multzo berean sartzea.

Gai horiek Esparru Programaren Jarraipen Batzordean aztertuko dira, otsailean. Hauxe da azterketa horren xedea: 2018an, 5.000 gazteri baino gazte gehiagori lehen lan-esperientzia ematea. Hori lortuko balitz, legealdi osorako ezarritako helburua beteko litzateke.

Industriako balio erantsi gordina hauxe izan da azken urteotan:




*(*) Behin-behinekoa*

Joera horren eta 2017ko lehenengo hiruhilekoen portaeraren arabera, pentsa daiteke zail samarra izango dela helburu hori betetzea.

2017. urteari buruz, nabarmentzekoa da sektore nagusien aldakuntza-tasetan lortzen ari den homogeneotasuna (industria, eraikuntza eta zerbitzuak sektore nagusitzat hartuta). Ogasun eta Finantza Sailak hauxe azpimarratu du EAEko ekonomiari buruzko 2017ko abenduko txostenean (hiru hilez behin egiten da txosten hori): *"EAEko ekonomia ez da sektore bakar baten mende egongo, behintzat ez lehen bezala; beraz, hori onuragarria da ekonomiaren hazkunderako"*. Egoera hori hazkunde ekonomikoa bultzatzeko, orokorrean, ona bada ere, helburu hori lortzeko zailtasuna handiagotu egiten du, industria- eta energia-sektorearen hazkundea gainerako sektoreena baino txikiagoa izaten delako.

**BPGdaren hiru hilez behingo aldakuntza-tasa, ekonomia-sektore nagusietan**




*Iturria: Eustat*

Gobernuak 2017ko uztailean onartu zuen 2017-2020 Industrializazio Plana. Horretan, apustu handia egin da EAEko industria-sektoreko ekimenen, jarduketan eta baliabideen alde.

Hori kontuan hartzen badugu, eta jakinda 2018ko egoera ekonomikoa nola garatzen den ikusteko dagoela, hauxe proposatzen dugu: helburu horri buruzko diagnostikoa 2018. urtearen amaieran xehetasunez egitea. Urtearen amaieran ebaluatu ahalko ditugu Industrializazio Planaren indarraldiko lehen urteko emaitzak, egokitzat jotzen diren erabakiak hartu aurretik.

Edonola ere, uztailean egingo da adierazle horren sei hilez behingo jarraipena.

Hona hemen adierazlearen bilakaera:

| **Biztanle bakoitzeko BPGd** | | | |
|---|---|---|---|
| | **2013** | **2014** | **2015** |
| Euskadi | 31.400 € | 32.700 € | 34.400 € |
| UE-28 | 26.700 € | 27.600 € | 28.900 € |
| **Euskadi** | **%117** | **%119** | **%119** |

Aurreko adierazleari buruz azaldu diren gaiak berriro ere azaltzen dira. Batetik, helburu hori lortzea oso zaila da. Bestetik, komeni da adierazle horren bilakaera 2018an aztertzea, horri buruzko erabakiak hartu aurretik.

Eskuragarri ditugun datuak 2015ekoak dira, eta EAEko BPGdaren 2016ko joera EBko BPGdarena baino askoz ere hobea izan da (EAEn % 3,1 igo da; eta EBn, % 1,9). Horrez gain, EAEko BPGdaren hazkunde-diferentziala positiboa izan da 2017ko lehen hiruhilekoetan, EBkoarekin erkatuta.

## BPGdaren bilakaera EAEn




*Iturria: EAEko Ekonomiari buruzko hiru hilez behingo txostena — 2017ko abendua. Ogasun eta Ekonomia Saila.*

Uztailean adierazle horren gaineko ikuspegi osatuagoa izango dugu, legealdi osoari buruz: EBko 2016ko datuak izango ditugu, eta, hartara, zehaztu ahal izango dugu EAEko BPGdaren hazkundea EBkoa baino handiagoa izateak zer eragin duen Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle bakoitzaren batez besteko errentaren ehunekoan, EBko batezbestekoarekin erkatuta.

20.000 gaztek lehenengo lan-esperientzia izatea | Industriako BPGda % 25era eta EBko biztanle bakoitzeko BPGda % 125era heltzea | **Berotegi-efektuko gasen isurketa % 20 murriztea** | Pobreziaren tasa % 20 murriztea | Euskadi Europako lehenengo 4 herrien artean jartzea, genero-berdintasunaren arloko adierazleetan

Herri-helburu hori bat dator “Euskadi 2020” ekimenean ezarritako helburuetako batekin. Helburu horretan proposatzen da Europar Batasun osoan berotegi-efektuko gasen isurketa % 20 murriztea, 2005eko datuekin erkatuta.

Honako hauek dira eskuragarri ditugun azken datuak (azkena 2017ko martxoan argitaratu da):




*Iturria: EUROSTAT eta Berotegi Efektuko Gasen isurketen Inbentarioa (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila)*

Horren arabera, Europar Batasuneko batezbestekoak ez du 2020ko helburua betetzen; EAEn, ordea, azken hiru urteotan bete da helburu hori (azken neurketaren emaitzak helburua gainditzen zuen, lau puntutan).

Ekainean beste neurketa baten emaitzak eskuragarri izango dira. Horrela, adierazle horrek legealdi osoan izan duen bilakaera hobeto ezagutuko dugu.

Gobernu Programaren herri-helburu hori, halaber, “Europa 2020” ekimenaren helburu nagusietako bati lotuta dago. Zehatz-mehatz, 2008an pobrezia-arriskuan zeuden pertsonen kopurua 20 milioi txikiagoa izateko helburua ezarrita dago.

2008an 116.2 milioi pertsona pobrezia-arriskuan zeuden, Eurostaten datuen arabera. Beraz, kopuru hori 20 milioi murriztuko bada, % 17,2ko murrizketa egin behar da. Hori horrela, Gobernuak aztertu du EAEko pobrezia-tasaren ehunekoa 20 puntu murrizteko modua.

Honako hauek dira Eurostatek pobrezia-indizeari buruz eman dituen azken datuak:




*Iturria: EUROSTAT*

Europar batezbestekoarekin erkatuta, EAEren posizioa askoz ere beherago dago, eta % 10eko tasa duten europar eskualdeen talde txikian dago. Bi digitukoa baino maila txikiagoa duen EBko estatu bakarra Txekiar Errepublika da.

Gainera, agerikoa da tasa horrek Euskal Autonomia Erkidegoan behera egin duela, 2012. urtetik aurrera, 2015ean izan ezik. Espainian eta Europar Batasunean, ordea, gora egiten ari da. Adierazle horren joera ezberdinaren zergatiak, duda barik, egoera ekonomikoaren bilakaera eta EAEk gastu sozialean egin dituen inbertsio handiak dira. Gainera, joera onuragarri hori krisialdiko urteetan ere erregistratu da.

Beraz, legealdia hasi aurretiko datuarekin erkatuta (% 10,9), tasa hori % 20 murriztuko bada, 2020an % 8tik beherakoa izan beharko du. Beraz, tasa horrek behera egiten jarraitzen badu, tasa horiek lortzen dituzten europar eskualdeen talde berezian sartuko gara (2016an, Europako bost eskualdek baino ez zuten lortu: Txekiar Errepublikako batek, Esloveniako batek, Italiako batek eta Finlandiako bik) (*).

*(*) Oin-oharra: Eurostatek ez dauzka Alemaniako landerrei buruzko datuak, eta Alemaniari buruz eman duen datuaren arabera, Alemaniako 2016ko pobrezia-tasa % 17,2 da.*

Eskuragarri dauden azken datu konparatiboen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa Europar Batasuneko bosgarren herrialdea da, genero-berdintasunean. Adierazle sintetiko horretan biltzen dira emakumeen eta gizonen arteko emaitzak, sei dimentsio nagusitan taldekatuta. Hona hemen dimentsiook: enplegua, dirua, ezagutzak, astialdia, boterea eta osasuna.

Legealdi honetarako ezarri den herri-helburua bosgarren postutik laugarrenera igotzea da.

Gaur egun, honako herri hauek daude posizio horietan: Suedia, Danimarka, Finlandia eta Herbehereak.

Izan ere, Europar Batasunean sakon berrikusten ari da helburu hori, eta behin irizpide berriak aplikatuta, 2018an argitaratuko dituzte emaitzak. Hori dela eta, baliteke EAEko posizioa aldatzea eta beharrezkoa izatea legealdiko hobekuntza-helburua berriro definitzea, abiapuntu berria zein den.

Datu hori 2018ko udaberrian ezagutuko da; hortaz, posizioa aldatu baldin bada, uztaileko jarraipen-txostenean proposatuko da helburu hori berrikustea.

### Genero-berdintasunari adierazlea




*Iturria: Eustat eta EIGE (Instituto Europeo de la Igualdad de Género). 2012ko datuak*

### 5.2 Adierazleen aginte-koadroa

Legealdi honetan Gobernuari adierazleen aginte-koadro bat emango zaio, Gobernuaren ekintza eta ekintzaren ebaluazioa eta Gobernuaren "Euskadi 2020" Programaren emaitzak zuzenean bateratzeko.

Lehendakaritzaren Idazkaritza egiten ari da lan hori, Ekonomia eta Aurrekontu Sailburuordetzaren laguntzarekin eta Eustaten eta sailetako estatistika-organoen lankidetzarekin batera.

Helburua **100 adierazlek** osatutako aginte-taula bat zehaztea da (egiturari buruzko 40 adierazle; eta sektoreei buruzko, 60). Honako ezaugarri hauek bete beharko lirateke:

**Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera eta Europako beste herri edo eskualde batzuena erkatzea**

**Europa 2020 estrategiarekin eta Nazio Batuen Agenda 2030 ekimenarekin bateratuta egotea**

**Gobernu Programaren 10 ardatzekin lotura estua edukitzea**

2017ko azken hiruhilekoan, Gobernuko sailekin eta, bereziki, estatistika-organoekin lan egin da, aginte-taula horretan sartuko diren adierazleek definizioa, iturrien sistema eta neurketa-metodo homologatua izan ditzaten. Horrela, Gobernuko sail guztietan irakurketa bera egin ahalko da.

Horrez gain, aginte-taula sailetara hedatzeko lana sailekin ere landu da, sail bakoitzeko hedapen-adierazleak identifikatzeko. Aginte-taularekin batera, "2017 – 2020 Gobernu Programaren adierazleen sistema" osatuko da.

Oro har, hauxe lortu nahi da: adierazleen zerrenda guztiz amaitzea, adierazle bakoitzari buruzko datu eguneratuak osatzea eta 2018ko urtarrilean adierazle-sistema ezartzea. Horrela, Gobernuak eta sailek legealdiko bigarren urtetik aurrera erabilgarri izango dute tresna hori, haien ekintzaren ondorioak, Gobernu Programari ere lotuta, ezagutzeko.

# 6. Ekintza garrantzitsuenak

6. eranskinean 2017ko 100 jarduketa garrantzitsuenak bildu dira, Gobernu Programaren ardatzen arabera antolatuta.

*“Adenda. 2017an sailek egin dituzten jarduketa esanguratsuenak”* izeneko dokumentuan sailen arabera sailkatuta bildu dira sail bakoitzean egin diren jarduketa esanguratsuenak, sail bakoitzak Gobernu Programaren arabera bere gain hartu dituen konpromisoei lotuta.

Dokumentu biak aztertuta, jarduketa kopurua handia izan da, bai eta jarduketen garrantzia ere. Aurten, besteak beste, honako gai hauek zehaztu dira: Itunari eta Kupoari buruzko akordioak, azpiegituren eta Ertzaintzaren gaineko akordioak, Garoñaren itxiera, Erreforma Fiskalaren akordioa eta ETAren armagabetzea; ziur asko, mugarritzat har daitezkeenak legealdi honetan.

# 7. Onartuta dauden laguntza-programa nagusiak

Gobernuak urtarriletik abendura martxan jarri ditu diru-laguntzak emateko programak eta neurriak, Gobernu Programaren konpromisoei lotuta. Zenbatekoa **1.400 euro**tik gorakoa izan da.

Gobernu Programaren zutabeen eta ardatzen banaketa hauxe izan da:

| Erabakitako laguntza-neurrien eta programen egokitzapena | | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 1. ZUTABEA | Enplegua, ekonomiaren suspertzea eta jasangarritasuna | 844,8 M€ |
| 2. ZUTABEA | Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak | 518,6 M€ |
| 3. ZUTABEA | Bizikidetza eta giza eskubideak | 41,4 M€ |
| **Urtarriletik abendura, guztira** | | **1.404,8 M€** |

Zenbateko horiek, batik bat, diru-laguntzen programei eta deialdiei lotuta daude. Helburua hauxe da: Gobernu Programari buruzko jarduketa zehatzak edota Gobernu Programan kontuan hartu diren premia-egoera espezifikoei erantzuteko jarduketak sustatzea.

Ardatz bakoitzeko laguntza-programa eta -neurri esanguratsuenak 7. eranskinean bildu dira.

2018. urtean programa horien jarraipena egiteko eredua hobetu nahi da, Gobernu Programaren eta Urteko Aurrekontuaren arteko harremanaren ikuspegia osatuagoa izan dadin. Egun arte, jarraipena 1.440 milioitik gorakoa izan da; horrek Gobernuaren 2017ko Aurrekontuaren % 15 inguru hartzen du.

Salbuespen berezi justifikaturen bat izan ezik, ez da sartu inbertsio publikorik, finantza-laguntzarik, diru-laguntza izendunik, ezta sisteman egiturazkoak diren diru-laguntzetako bat ere (adibidez, itunak unibertsitateekin edo unibertsitateaz kanpoko ikastegi pribatuekin). Halaber, ez da sartu diru-sarrerak bermatzeko laguntzarik, ezta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarririk ere.

2018ko helburua hauxe da: egiturazkoa ez den gastu hori osoa azterketa horretan sartzea (bereziki, langileen gastuak); eta finantza- eta inbertsio-programak ere bertan txertatzea.

Gaur egun, Lehendakaritza eta Ogasun eta Ekonomia Saila aurrekontu estrategikoen kontzeptuak lantzen ari dira, aurrekontuaren eta Gobernu Programan ezarritako konpromisoen, ekimenen eta helburuen arteko lotura indartze aldera.

# 8. Urteko Araugintza Plana

2017ko Urteko Araugintza Planaren argitaratzea Gobernu Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 9an erabaki zen.

Plan hori osatzen dute sail bakoitzean onartzen diren urteko araugintza-planek. Bertan biltzen dira sail bakoitzean 2017an onartu nahi diren dekretu-mailako xedapen orokorrak.

Plan osoan 94 dekretu daude (zerrenda hemen kontsulta daiteke: http://www.irekia.euskadi.eus/es/news/38560 . 2017ko abenduaren 31n, hauxe da betetze-maila:

| Urteko Araugintza Plana 2017 | | | |
|---|---|---|---|
| **Saila** | **Proiektuen kop.** | **Gaindituen kop.** | **Izapidetzen** |
| Lehendakaritza | 6 | 2 | 3 |
| Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | 7 | 3 | 3 |
| Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak | 11 | 4 | 7 |
| Enplegua eta Gizarte Gaiak | 6 | 4 | 2 |
| Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza | 8 | 1 | 4 |
| Ogasuna eta Ekonomia | 5 | 2 | 0 |
| Hezkuntza | 18 | 6 | 13 |
| Osasuna | 12 | 3 | 6 |
| Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 6 | 1 | 3 |
| Kultura eta Hizkuntza Politika | 5 | 3 | 1 |
| Segurtasuna | 7 | 6 | 1 |
| Lana eta Justizia | 3 | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **94** | **37** | **44** |

Onartu diren dekretu guztien zerrenda *8 eranskinean* jasota dago. Zerrenda horretan Urteko Araugintza Planean sartu ez diren baina Gobernuak onartu dituen zazpi dekretuak ere jasota daude.

Onartutako dekretuei buruz, honako hauek nabarmendu behar dira, araudi orokor gisa duten indarrarengatik:

| Indar arauemaile handieneko dekretuak | | |
|---|---|---|
| | **Dekretua** | **Saila** |
| 1 | 16/2017 DEKRETUA, urtarrilaren 17koa, **Gizarte-larrialdietarako** laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena. | Enplegua eta Gizarte Gaiak |
| 2 | 43/2017 DEKRETUA, otsailaren 14koa, 2015-2020 aldirako Euskadiko **Landa Garapenerako** Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen duena. | Garapen ekonomikoa |
| 3 | 152/2017 DEKRETUA, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan **haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko** udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko BALORA tresnaren eguneraketa onesten duena. | Enplegua eta Gizarte Gaiak |
| 4 | 155/2017 DEKRETUA, maiatzaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko **Izatezko Bikoteen Erregistroaren** Erregelamendua onartzeko dena. | Enplegua eta Gizarte Gaiak |
| 5 | 162/2017 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, **Bikain-Euskararen** Kalitate Ziurtagiria arautzen duena. | Kultura |
| 6 | 187/2017 DEKRETUA, uztailaren 4koa, **euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak** baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. | Kultura |
| 7 | 252/2017 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren **osasun-prestazioak** emateko araubideari buruzkoa. | Osasuna |
| 8 | 262/2017 DEKRETUA, abenduaren 5ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, eta **pertsona bakarreko beste gobernu-organoak** izendatzeko eta kargua uzteko prozedura arautzen duena. | Hezkuntza |
| 9 | 245/2017 DEKRETUA, azaroaren 7koa, **Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko zerbitzuetarako** Erakundeen Arteko Batzordea sortzen duena. | Segurtasuna |
| 10 | 272/2017 DEKRETUA, abenduaren 19koa, kreditu-erakundeek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan duten finantza-lankidetzari buruzko Dekretua aldatzen duena. | Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza |

Urteko Araugintza Planaren betetze-maila horrek honako gogoeta hauek eragin ditu:

- 2017ko Urteko Araugintza Plana asmo handikoa izan zen, eta sailek garrantzi handiko erregelamenduzko arauak sartu zituzten.
- Alabaina, ezarritako dekretuen % 40 baino ez da onartu, urte osoan. Kontuan hartzen badugu onartu diren 37 dekretuetatik 11 Gobernuko sailen egitura organikoari buruzkoak direla, ondoriozta dezakegu Gobernuaren araugintza-jarduketak oso urrun daudela hasierako aurreikuspenetatik, erregelamendu-eremuari dagokionez.
- Ezarritako dekretu askoren izapideak egiten hasi da; beraz, baliteke 2018ko lehen seihilekoan onartuta izatea.

Horren arabera, honako **ondorio** hauek atera ditzakegu:

## 1.a

Urteko Araugintza-Planaren betetze-maila ez da izan espero zena bezalakoa.

---

## 2.a

Aurreikuspenak bete ez badira, arazoa ez da izan planean ezarrita zeuden dekretu-mailako arauak egitea, baizik eta arauok onartzeko behar izan den denbora. Izan ere, Urteko Araugintza-Planean jasotako arauen % 84 onartu dira, edo izapidetzen hasi dira; hortaz, litekeena da izapidetzen ari direnak 2018ko lehen seihilekoan onartzea.

---

## 3.a

Bestalde, onartu diren eta planean bilduta ez dauden dekretuen kopurua txikia da. Zehazki, zortzi dira: haietako lau antolaketa- eta egitura-arauk dira; eta gainerako lauak, erregelamenduzko araudi orokorrak dira.

---

## 4.a

Sailek elementu horiek kontuan hartu beharko dituzte, urteko araugintza-planak onartzerakoan (plan horiek guztiek Gobernuaren Urteko Araugintza-Plana osatzen dute). Hori kontuan hartzen badute: batetik, 2018ko Urteko Planaren betetze-maila eta aurreikuspenak hobeto bateratuko dira; eta, bestetik, planean ezarrita ez dauden baina onartzen diren arauen kopurua ere txikiagoa izango da.

---

# TXOSTENAREN ONDORIOAK

## 1.a

Legealdi honetako **programa-oinarriak** (Gobernu Programa, Herriaren helburuak, Plangintza Estrategikoa eta Legegintza-Programa) 2017an ezarri ziren, eta, zehazki, urtearen lehen hiruhilekoan.

## 2.a

Gobernuaren politika publikoen eta Europa 2020 eta Nazio Batuen Agenda 2030 (garapen jasangarrirako helburuak) ekimenen arteko **koherentzia**-oinarriak finkatu dira.

## 3.a

Aurrekontuari buruzko akordioa eta estatuko **akordioak** —ekonomia-itunari, kupoari, azpiegiturei eta segurtasunari buruzkoak, batik bat— baliagarriak izan dira, gai garrantzitsuak ebazteko. Izan ere, gai horiek Gobernuaren jarduna baldintzatu ahalko zuten, legealdian.

## 4.a

**Legegintza-programaren** betetze-maila espero baino handiagoa izaten ari da: Legebiltzarrean bederatzi lege izapidetzen ari dira, eta 2017ko legegintza-programan ezarrita zegoen Legebiltzarrari lege-proiektu bat baino ez helaraztea.

## 5.a

2017an sei **plan estrategiko** berri onartu dira. Horrez gain, bederatzi plan gehiago jada indarrean zeuden; beraz, Gobernuaren Plangintza Estrategiko osoa (15 planez osatuta) indarrean egongo da legealdiko lehenengo urtean.

## 6.a

**Programa operatiboa** espero baino gehiago garatu da. Hau da, Gobernuak eta haren sailek Gobernu Programan aurreikusitako jarduketa baino jarduketa gehiago egin dituzte, ezarritako 175 konpromisoei eta 650 ekimenei lotuta. Gobernuaren 175 konpromiso guztiek garapen-jarduketak izan dituzte, eta 655 ekimen guztien % 86k ere bai. Jarduketa horietan oso handia izan da Gobernuaren **gardentasuna**. Gobernuak eta sailek Gobernu Programan bildutako konpromisoak eta ekimenak garatzeko eta gauzatzeko egin dituzten jarduketatik 2.132 jarduketa argitaratu dira Irekia atarian (Gobernuaren gardentasun-ataria).

## 7.a

Gobernuaren eta sailen lehen seihilekoko jarduna oso bizia izan da ikuspegi kuantitatibotik, eta kualitatibotik ere bai. Horren froga dira aldi horretako **100 jarduketa esanguratsuenak** (5. eranskinean jasota daude).

## 8.a

